

EUSKARAZ ARI

(Euskararen Erabilpena Biziarazteko Proiektua)

BIURDANA INSTITUTUA

Biurdana Bidea, 3

31011 Iruñea

Tfnoa: 948198598

Faxa: 948198208

Posta-e: iesbiurd@pnta.cfnavarra.es

AURKIBIDEA

Ikastetxearen azalpen orokorra: markoa eta mintzagramak	5
2003/2004 euskal liburu irakurketa publikoa	7
2003/2004 euskal liburu irakurketa publikoa	13
2003/2004 biurdana aldizkaria	20
Gelan euskara mintzatuaren programazioa eta ebaluazioa	22
Ikastetxeko beste egoitzak euskara topagune	23
Ikastetxeko jaiak	24
Hizkuntza inguruko hitzaldi, lehiaketa literarioak... ..	25
Balorazio orokorra	26
I. Eranskina: liburuaren irakurketak sortutako diziplinartekotasuna	27
II. Eranskina: aldizkaria egiteko prozedua	37

IKASTETXEAREN DESKRIPZIO OROKORRA: MARKOA ETA MINTZAGRAMAK

BIURDANA Bigarren Hezkuntzako Institutua, Iruñako Donibane hauzoan kokaturik dago, ikastetxe publikoa da, D eredukoa, bertan DBH eta Batxilergoko ikasketak burutzen dira.

2003/2004 ikasturtean 454 ikasle, 54 irakasle hauetatik behin betikoak edo gutxienez urte bat baino gehiago ikastetxean daramatenak 34, beraz hogeit berri eta 5 langile ez irakasleak.

Euskeraren egoeraren diagnosis egin ondoren honako emaitza hauek eman dizkigu: agerpena eta ezagutzari dagokionez, ikasle, irakasle eta langile ez irakasle-en % 100-a euskalduna da, gurasoen % 26,43 ere bai, beraz, hiru laurdenak ia erdaldunak dira. Liburutegiko jardunaren %59,02 euskeraz egiten da: antolaketaren %87,50 eta fondoaren %40,04 euskerazkoa da.

Euskeraren erabilerari dagokionez, idatziz institutu barruan eta kanporantz igortzen denaren %74,72 euskeraz egiten da. Posta da baxuena %50, hau elebiz egiten delako.

Ahozkoari dagokionez, %65,52 egiten da euskeraz; ikasleek %49-rekin eta gurasoak %5,04-rekin dira erabilpen baxuena egiten dutenak.

Ikasleei dagokienez, eta zikloka, DBH 1. zikloko ikasleen %54,1-ak, DBH 2. Zikloko %53,6-ak eta Batxilergoko %34 egiten dute heuren artean euskaraz.

Diagnosiak agerian uzten du ikasleek egiten duten euskara mintzatuaren erabilpena eskasa dela eta guretzat, irakasleontzat, egoera kezagarria da. Horregatik, egoera honi aurre egiteko eta euskeraren erabilpena suspertzeko, egitura iraunkor bat behar dugula iduritzen zaigu.

Aipatu beharra dago urtero institutua uzten duten ikasleak eta sartzen diren berriak ez dutela eragin nabarmenik diagnosiak ematen dizkigun portzentaietan, orohar mantendu egiten dira.

Bestalde mintzagramen bitartez ikasle aktiboak eta pasiboak

antzematen ditugu. Lehenengoak, baliotsuak gertatzen zaizkigu

gure egitasmoak bideratzeko eta baita gela barruan taldeak egiteko. Bigarren-
goak euskararen erabilpenean izan dezaketen eragin kaltegarria ekiditeko modua
errezten digute.

Proiektuaren laburpenean zerrendatzen ditugu euskara mintzatuaren erabil-
pena suspertzeko martxan jarri dugun euskera plana eta baita berau osatzen duten
ekintza handiak.

Hauetan lortutakoekin gauzatuko da mamoria hau.

2003/2004 EUSKAL LIBURU IRAKURKETA PUBLIKOA

SARRERA

Aurtengo apirilaren 2an Biurdana Bigarren Hezkuntzako Institutuan Irakurketa Publikoaren V Edizioa burutu genuen, Nicolas Ormaetxea, “Orixe”ren irudiaren inguruan. Irakurketa Publiko hau bada Liburuaren Eguna ospatzeko aukeratu dugun modua.

V ekitaldi honek jarraipena eman die aurreko lau ikasturteetan buruturikoei; Bernardo Atxaga, Axular, Arantxa Urretabizkaia eta Idazle Gazteak (Unai Elorriaga, Castilo Suarez eta Alberto Ladrón de Gevara) izan ziren, hurrenez hurren, aipatu ekitaldietan hautaturiko autoreak.

Euskara eta liburua ardatz dituelarik, Irakurketa Publikoak pertsona anitz bildu nahi ditu. Esparru ezberdineko euskaldunak datoz irakurle gisa, entzuleak nagusiki ikasleak dira eta hainbat irakasle zein gurasok antolamenduaren ardua sektore guztiak konpartitzen dute. Egun honetan eskolako funtzionamendua ohi-ko eskematik erabat ateratzen da, egun berezia da denontzat.

HELBURUAK

1. Jardueraren helburu nagusia **irakur zaletasuna bultzatzea** da. Ikasleak liburura eta irakurtzera beste modu batez hurbiltzen dira, areto handian eta talde osoak irakurtzen du, pertsona ezagunek jartzen dute ahotsa eta haien presentzia. Horrela, jakinmina pizten zaie eta irakurtzeko gogoia sortu.

- Irakurmenaz gain, hizkuntzako beste hiru trebetasunak ere lantzea, Euskaraz. Batetik, **ulermena** testuak irakurri eta entzutean. Bestetik, **mintzamena** harrera eta kazetaritza lanak burutzean, eta baita solasaldietan ere. Bukatzeko, kazetari lanetan aritzen direnak, bereziki, **idazmena** lantzen dute.
2. **Euskal literatura ezagutzea** eta gozatzea, aurten, konkretuki, poesia eta itzulpengintza.
 3. Gerra Zibilaren inguruko **garaia ezagutzea**, gizarte eta, bereziki, etnografia mailan.
 4. **Musika eta poesia**, arte adierazpen bideak, uztartzea.
 5. **Ikastetxea kanpora irekitzea**. Ekitaldia antolatzeko Iruñeko Udaletxea eta Nafarroako Ateneoarekin komuneko lana egin da. Horietaz gain, hainbat euskaldunen parte hartze aktiboa izan dugu, irakurle gisa, eta baita beste ikastetxe eta ikasle ohiak ere.
 6. **Talde lan egitea**. Eskola komunitateko esparru ezberdinek, bai irakasleek, bai ikasleek, eta baita gurasoek ere, elkarren ondoan antolamendu lanak eta jarduerak aurrera eraman dituzte. Arlo akademikoari dagokionez, hainbat departamentu didaktikok parte hartu du (Euskara, Gizarte, Musika, Plastika, Teknologia, eta abar).

EDUKIAK

1. Irakurketa isila, geletan, eta ozena, Axular Aretoan.
2. Euskaraz mintzapraktika saioak.
3. Orixeren bizitza eta garaia.
4. Orixeren lanaren antologia.
5. Gerra Zibilaren garaiko tresneria.
6. Herri musika.
7. Jardueren argazkien erakusketa.
8. Prentsako eta ikastetxeko aldizakariko artikuluak.

METODOLOGIA

1. Euskara Departamentuak testuak, entzule eta irakurleen arabera, moldatu ditu.

2. Literatur testuak gelan landu dira Irakurketa Publikoaren Egunaren aurretik.
3. Musika entsaioak egin dira aldeztu aurretik.
4. Irakurleak lortzeko, entzuleak banatzeko, harrera lan egiteko eta kazetari-tza lanetarako koordinazio lan handia burutu du Batzorde Antolatzaileak.

JARDUERAK

Modu kronologikoan aipatuko ditugu.

Batzordearen osaketa

Zenbait irakaslek, gurasok eta irakasle ez diren langilek, borondatez aurkeztuta, osatu genuen Irakurketa publikorako batzordea. Zuzendaritzako bi partaidek ere hartu zuten parte eta koordinazio lanetan aritu dira. Ikasleek batzorde honetan parte hartu ez badute ere lan askotan azpibatzerdekideekin bat egin dute.

Lehendabiziko batzorde nagusiaren bileran egin beharreko lan guztiak aipatu ziren eta lanak banatu ondoren, azpibatzerdeak osatu ziren.

Batzorde nagusiak lau bilera egin ditu urtean zehar zuzendaritzakoek deituta. Azpibatzerde bakoitzak autonomia handiago izan du aurreko urteetan baino.

Gelen Izendapena

Ekintza honen helburua da euskal kulturaren garrantzia izan duten idazleen lanak eta bizitza ezagutu araztea, gure kultur ondarea preziatzen ikastea eta institutuko gelak euskara landu dutenen izenak izatea.

- Abiapuntua eratutako batzordea bada ere, gero zabalduko da institutuan inplikatu dauden estamentu guztiei: gurasoak, ikasleak eta irakasleak, beraien baitira aukeratu behar dutenak. Euskara Departamentuak garatu behar du klaseko ekintzak maila ezberdinetan.
- Irakurmena da gehien lantzen dena. Biografiak egiteko idatzi egin behar du eta aukeratzeko prozesuan mintzamina.

DESKRIPZIOA

- Urtero bezala, institutuko hiru gela bataiatu egin ditugu euskal kulturaren itzal handiko izenez. Esate baterako bataiatuak diren gelen artean, *Axur*

lar, Bernardo Atxaga, Pedro Miguel Etxenike, Maurice Ravel, Jimeno Jurio izen daramatenak ditugu, besteak beste.

- Lan honetan irakasle eta ikasleez osaturiko azpibatzorde bat aritu da.
- Prozedura hurrengoa da:
 - Deialdia: Deialdia helarazten zaio eskola taldekide guztiei: irakasle, ikasle eta gurasoei.
 - Izenak: Euskal kulturaren ospe handiko izenak jasotzen ditu honetarako sortu den azpibatzordeak. Izenak arlo guztietakoak dira. Bozketa egiten da jasotako izen guztien artean.
 - Bataioa: Institutuko hiru gela bataiatzen dugu bozkatuen diren bi izenekin.
 - Liburuaren egilea: Hirugarren izena urtean aukeratua den liburuaren egilearena da. Aurten, bada, Nikolas Ormaetxea “Orixe”rena. Normalean gela honen bataioa irakurketa egunean bertan egiten da eta liburuaren egileak egiten du (bizirik bada), edo egilearekin zerikusi handia duen baten batek. Aurtengo kasoan Pablo Iztuetak, Orixeren ikerlaririk onenak, egin zuen.
 - Biografiak: Gizon-emakume horien biografia egiten da eta taula batean inprimatua jartzen da izendatua den gelan, begibistan. Joan den urtean batzorde nagusian erabaki zen bezala, ikasleren batek gauzatzen ditu biografia horiek. Aipatzekoa da ikasleen parte hartzea ekintza honetan oso handia izan dela. Aurten, adibidez, beraiek aurkeztu dituzte izen guztiak eta beren biografia egin.
- Aurten aukeratu diren izenak huexek dira:
 - Nikolas Ormaetxea “Orixe”, aurtengo irakurketarako aukeraturiko egilea.
 - Arturo Campion, Iruñeko politikaria, idazle eta euskalzalea, bere jaiotzaren 150. urteurrena aurten betetzen delarik.
 - Pierre Bordazaharre “Etxahun Iruri”, iparraldeko musikaria eta euskal kanta askotako egilea.

Axular Aretoan posterra

Honen helburua da Irakurketa Publikoa ezagutu araztea ahalik eta entzute handiena emanaz eta, bide batez, kartel diseinuaren teknikak ezagutzea.

- Kartelaren diseinuan parte hartu dezakete zentroko estamentu guztiak.
- Bereziki Plastika Departamentuari dagokio jarraibideak ematea.

DESKRIBAPENA:

- Posterraren ardura plastikaren irakaslearena ohi da. Berak aukeratu du bozeto desberdinen artean. Honetan kislatu nahi izan du irakurketaren helburu nagusia: Orixeren obra ikasleengan hurbiltzea. Horregatik ume bat jolasean agertzen da Orixeren izena burbuiletatik ateratzen delarik.
- Kartel hau Iruñeko leku desberdinetan banatu da: liburutegi, kultur areto, denda eta kultur etxe askotan zehar.
- Kartel handi pare bat ere inprimatzen dugu sarrera nagusia eta Axular aretoa (irakurketa publikoa egin behar den lekua) giotzeko:




Liburu markatzailea

Honen helburua da Irakurketa Publikoa ezagutu araztea ahalik eta entzute handiena emanaz, irakurketan esku izan dutenei beraien parte-hartzea eskertzea eta Orixe eta bere obraren eza-gupena zabaltzea. Euskara idatzia eta irakurketa bultzatzea nahi du.

DESKRIBAPENA:

- Irakurleek ez dute inolako etekin ekonomikorik jasotzen (kilometrajea izan



ezik). Hala ere, bere jarduna bukatu ondoren lore eta irakurketarako propio diseinaturiko liburu markatzaile bana jasotzen dituzte. Markatzaile hau irakurketarako ere diseinatua den zorro batean ematen zaie, opari gisa.

- Liburu markatzaile honen diseinu eta egiteko arduraren gurasoen elkarteak bereganatzen du.

Aurtengo markatzailean Orixeren irudia jarri dute beren idazkeraren gainean. Bertan Villasantek Orixeri buruz esandakoa ere jarri dute:

“Idaztankerari buruz hauxe bakarrik esango dut: Orixek ezin hobeki ezagutzen du euskara, eta herri euskara hain zuzen, eta herri honek hitz eta itzulkinekin adierazi nahi izaten ditu gauzak”.

- Markatzailearen atzealdean irakurle guztien izenak agertzen dira alfabetikoki zerrendaturik.
- Markatzaileaz aparte hauxe gordetzeko zorroa ere diseinatzen dute, eta bertan Orixeren bizitza eta obrari buruzko datuak aipatzen dira.

2003/2004 EUSKAL LIBURU IRAKURKETA PUBLIKOA

HITZALDIA

2003/2004 ikasturteko Irakurketa Publikoan berria suertatu den ekitaldia izan dugu hitzaldia. Antolatzerakoan bi izan ziren, nagusiki, zehaztu genituen helburuak; batetik, Batxilergoko ikasleei Irakurketaren ardatz hartu genuen Orixeren bizitza zein obra maisuki menperatzen dituen Paulo Iztuetaren ahotik ezagutaraztea eta hiztegi teknikoak bilduko zuen euskara entzutea eta, bestetik, ekitaldi hau institututik atera eta publikoa egitea.

Antolaketan Iruñeko Udala eta Nafarroako Ateneoaren laguntza izan genuen.

“*Orixen: Iluna eta argia*” izenburuko hitzaldia Iruñeko Descalzos karrikan dagoen Erraldoien Txokoa burutu genuen, apirilaren 1ean, hain justu liburuaren irakurraldi-egunaren bezperan.

Arestian aipatu bezala, Orixeren bizitza eta obra jorratu zituen Pablo Iztuetak. Benetako amarik gabeko haurtzaroak, apaizerako bidean izaniko arazoek, gerrak eta gerra osteko kartzelak eta erbesteratze garaiak Orixerengan izan eraginaz aritu zen Paulo Iztueta. Arlo literarioan ere aztertu zuen idazlea, batez ere “*Euskaldunak*”, bere obra epikoa. Aruntzagoa joanda, Orixeren garaikide izan ziren Lauaxeta eta Aitzolekin izaniko harreman gaiztoen berri eman zuen hizlariak. Hitzaldi osoan zehar jorraturiko gaiak helarazten laguntzeko diapositibez baliatu zen.

IRAKURLEAK SOLASEAN

Aipatu bezala, ekitaldi nagusia izan zen apirilaren 2ko irakurraldia, zeinetan institutuak gonbidatuta hainbat arlotan aritzen diren euskaldunek parte hartzen zuten.

Irakurle hauetako batzuekin *Irakurleak solasean* ekitalditxoa burutzen dugu. Maila bakoitzeko ikasleak institutuko areto batean irakurle hauetako batekin biltzen dira honek bere jardueraren berri eman diezaien eta, bide batez, irakurle eta ikasleen artean elkarrizketa sor dadin. Saioaren iraupena ordu erdikoa da. Horretarako, ikasleen maila eta nahia kontuan harturik, erakargarri egiten zaien pertsonaiarik hautatzen dugu; solasean arituriko irakurleen artean Natxo de Felipe, Gorka Urbizu (*Berri Txarrak* taldeko abeslaria), Iban Garate, Maialen Lujanbio eta Joseba Tapia izan ziren.

Solasaldi hauek ez ditugu inprobisatzen. Izan ere, tutoreen laguntzaz mintzatuko diren pertsonaien berri ematen zaie ikasleei. Tutoretza-saioetan galdera-prestaketan aritzen dira ikasle eta tutoreak. Pertsonaia hauek eta beraien zeregina ikasleengana hurbiltzeaz gain, nagusiki ahozko adierazpena dugu helburu, bai solasalditxoan bertan bai tutoretza-saioetan galderak prestatzen aritzen direnean. Idatzizko adierazpena galdera-prestaketan zaindu eta lantzen dugu.

KAZETARITZA

Gure ikastetxean kazetari-talde bat dago, DBH zein BL-ko maila guztieta-ko ikasleek osatzen dutena. Talde honek *Biurdana Gurea* aldizkaria urtean bitan argitaratzen du, Fisika eta Kimika irakasten duen irakasle baten gidaritzapean.

Irakurketa Publikoa ospatzen dugun eguna egun handia dugu institutuan. Egun soil honetan sekulako jende ospetsu andana pasatzea bada horretaz baliatzeko arrazoi nahikoa.

Egun osoan zehar, kazetari hauek galtzak bete lan ibiltzen dira ospetsu guztiei iritziak jasotzen.

Zeregin honetan ere ahozko zein idatzizko adierazpenek garrantzi handia dute; ikasle hauei ere irakurtzera etorriko direnen informazioa ematen zaie zenbait egun lehenago, nahi dituzten elkarrizketa eta nahi duten eran prestatzen has daitezten. Lehengoan aipatu irakaslearekin batera burutzen dituzten elkarrizketak, batzuk pasilloan bertan eta azkar, beste batzuk gela batean patxada handiagoaz.

Kurtsoaren bukaeran argitaratzen den bigarren alean lanaren fruituak ikusten dira.

IRAKURRALDIA

Ekitaldi nagusia izan genuen hauxe, aurreko jarduera guztiei amaiera eman ziena. Orixeren “Euskaldunak” obra eta Iruñeko Udalak garai betan saritu zuen “On Kixote”-ren itzulpenaren zatia izan ziren irakurritakoak.

Pasartean irakurketa ordu erdiko zortzi saiotan banaturik daukagu. Horieta-riko bakoitzean irakurriko diren pasarteak zein hautatuko diren irakurleak maila bakoitzeko ikasleengan pentsatuta erabakitzen dira. Irakurleen artean ikastetxearen partaideak zein euskal kultura arloan sona duten pertsonak tartekatzen ditugu (idazleak, kazetariak, kirolariak, telebistako jendea, ikerlariak, zientzialariak, ...). Saio bakoitzean, gehienetan behinik behin, ikasle edo irakasle batek hartzen du parte. Era berean, irakurraldian gure zentroari atxikiturik dauden ikastetxeetako ikasleek eta irakasleek parte hartzen dute, gure ikastetxeetako bezalaxe, hau da, tes-tuak eta beraien irakurketa aurretik landu dutelarik. *ANEXO* ?-n azaltzen dira 2003/2004-ko ekitaldian irakurri zutenen izenak. Irakurle bakoitza bost minutuz aritzen da.

Ekitaldiari aurkezpena egiten zaio; 2003/2004-ko ekitaldian BL-ko ikasle batek aureskua dantzatu zuen, ikaskide batzuek txistua jotzen zuten bitartean. Saio guztiak ikastetxeko zuzendariak aurkezten ditu, saioan arituko diren irakurle- en aurkezpen txikia egiten duelarik.

Ozenki egiten den irakurketa euskara klaseetan prestatzen da. Badago, beraz, aldez aurretiko lana. Euskara irakasleek maila bakoitzean irakurriko diren pasarte- ak lantzen dituzte klasean. Beraietan irakurtzeko era bereziki landu egiten da. Ira- kasle hauek badira, era berean, saio bakoitzean irakurriko duen ikaslea hautatzen dutenak.

Aipatu egin dugu arlo desberdinetako pertsonaiak irakurtzera gonbidatzen ditugula. Beti ere, badaude irakurle batzuk gure institutuarekin lotura izan dute- nak. 2003/2004-ko ekitaldian institutuko bi ikasle ohi gonbidatu genituen: Iruñe- ko Udalak antolaturiko literatura lehiaketan irabazi zuen Amaia Remirez eta CAF-Elhuyar elkarteak deituriko lehiaketetan hirugarren saria batean eta lehe- nengoa bestean eskuratu zituen Oihane Lakar. Horrela, ikasle ohi hauei omenal- ditxo bat egiteaz gain institutuko ikasleei horren berri ematea bilatu genuen. Bes- tela, euskara ikasten diharduten zenbait irakurle ere gurera ekartzen ditugu, Marta Mendia eta Iñigo Monreal atletak eta Fernando Goñi pilotariaren kasua.

Azkeneko bi saioak berezienak dira. Beraietan sona handiko pertsonaiak ekartzen ditugu, bukaera gogoangarriago egiteko asmoz. Saio hauetan Euskal- tzaindiko partaideren bat egokitzen saiatzen gara (Pello Salaburu izan genuen 2003/2004-koan), hautaturiko autorearekin erlaziorik duenik (Jose Mari Aranal- de, Lourdes Otaegi, Orixeren lanaren aztertzaile direnak). Hautaturiko liburuaren

autorea bizirik bada, berak nahi dituen pasarteak irakurtzen ditu. Orixeren kasua bestelakoa izanik, aurreko egunean hitzaldia eman zuen Pablo Iztuetak itxi egin zuen ekitaldia eta “*On Kixote*” Orixek itzulitako obraren pasarteak hautatu zituen amaitzeko. Azkeneko saioan entzule diren ikasleak badira BL 2-koak, hau da, ikastetxean dugun maila altueneko ikasleak.

PRESTATURIKO MATERIALA

- Ekitaldi nagusia iragartzeko kartela.
- Hitzaldia iragartzeko kartela.
- Irakurleei oparitzen zaizkien liburueta orri-markatzailea eta liburuxka.
- Axular aretoan paratzen den kartela.
- Etorriko direnen berri emateko ikasleei emandako dokumentua.
- Prestaturiko biografiak.
- Irakurleak biltzen dituen koadroa.
- *Irakurleak solasean* ekitalditxoaren iragartzeko koadroa.
- Erakusketaren zenbait argazki.

EBALUAZIOA

Urtero egiten dugun moduan, batzordean elkartu ginen Irakurketaren inguruan egin ditugun ekintzak ebaluatzeko. Oro har, oso sentazio ona izan dugu, gauza batzuk hobetu ahal baditugu ere.

Batzorde Antolatzaileak batetik eta klaustroak eta zuzendaritza taldeak bestetik aurtengo ekitaldia oso positibotzat baloratu dute. Helburu ezberdinen lorpena altua jo dute.

Hobekien baloratu ditugun puntuak hauek izan dira:

- Irakurketa Publikoa bermatu egin da: honelaxeko antolaketak dakarren lana ikusita, eguberri aurretik irakasleei egin zitzaizen deialdiak bere fruituak eman ditu.
- Batzorde handi batean aritu beharrean autonomia duten azpibatzerdeen bitartez aritzea positiboki baloratu dugu.
- Iruñeko Udala eta Nafarroako Ateneoarekin izandako harremanak oso emankorrak izan dira, eta hurrengo urteetan errepikatzen modukoak.

Hitz egina dugu hurrengo irakurketetan berriro ere beraiekin batera hitzaldiren bat antolatuko dugula Irakurketa Publikoa dela eta.

- Hitzaldia ikastetxetik kanpo egitea oso ongi baloratu da. Egia da ikasleen aldetik parte hartze eskasa izan zela; honelako ekitaldietara orokorrean jende gutxi bertaratzen da.
- Barneko antolaketa nahiko ona izan da, honelaxeko egunek ikastetxearen funtzionamendurako duten kontuan hartuta. Lasaitasun sentsazioa izan da zaintzaileek egoerak oso ongi bideratu dituztelako.
- Aurtengo proposamena musika eta irakurketa zenbait saiotan uztartzearena oso arrakastatsua izan da. Honek ekitaldiari seriotasuna kendu dio, entzuleei erakargarriago bihurtu dielarik.

Hobetzekoak izan diren puntuak:

- Erakusketa ongi antolatu izan arren, zenbait egunetan oso gutxi bisitatua izan da. Sekulako lana eman du izan duen etekinerako. Hurrengo urtean aztertzekoa izan behar du honek.
- Irakurketak prentsan eta komunikabideetan izan duen islada oso handia izan da aurretik baina oso txikia, gure ustez, behin pasatu denean. Komunikabideekin izan behar den harremana hobetu behar dugu.

IRAKURKETA PUBLIKOA EBALUATZEKO PLANA

Irakurketa Publikoa Antolatzeko Batzordeak ebaluazioa aurrera eramateko lana izango du bere gain. Batzorde honetan institutuan parte hartzen dute lau estamentu daude, hau da gurasoak, irakasleak, ikasleak eta langileak. Denboraren inguruan hiru momentuetan antolatuko dute ebaluazioa:

1. *Irakurketa baino lehen batzordeko partaideek lehenengo urteko ebaluazio txostena aztertuko dute egindako iradokizunak aurtengo edizioan kontuan izateko.*
2. *Irakurketa egunean irakurleen naiz beste bistarieen iradokizunak ebaluatuko dira. Honetarako kasu batzuetan gutxienez ebaluatzeko eredia beteko da.*
3. *Ondoren, batzordea bilduko da. Komenigarria ikusten ba du beste inkestak zabalduko die inplikatuiei. Datu hustuketa egin eta gero azken txostena egingo du ondoren agertzen den eredia jarraituz. Bertan islatuko da zer egin den ondo, zer da hobetu daitekeena eta hurrengo urterako proposamenak.*

Atxikitzen da ebaluatzeko eredia (1) eta irakurketa publiko baten egindako txostena (2).

II. IRAKURKETA PUBLIKOAREN EBALUAZIOA (1)
2000-2001 ikasturtea

ONDO EGINDAKOA Lo que hicimos bien	+	HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK Propuestas de mejora	Δ
HURRENGO URTERAKO PROPOSAMENAK Propuestas para incluir el próximo año			

II. IRAKURKETA PUBLIKOAREN EBALUAZIOA (2)

2000-2001 ikasturtea, maiatzaren 23

<p>ONDO EGINDAKOA Lo que hicimos bien</p>	<p>+</p>	<p>HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK Propuestas de mejora</p>	<p>Δ</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Guztia (2) - Liburu zaharren erakusketa (4) - Irakurleak (ongi prestatu eta irakurri zuten) (3) - Irakurketa jarraitzeko liburuxkak (4) - Irakurleen arreta - Ikasleen inplikazioa handiagotzea (oparien banaketa, laguntzaileak, kazetariak,...) (3) - Irakasleen parte hartzea handiagotzea - Lanen ardurak banatzea. - Ikastetxe osoa inplikatzeko. - Koordinazioa ona izan zen eta dena "jarraian" gertatu zen. - Batzorde bat antolatzea (2) - Eginbeharrak urrastea. - Kontzertua - Irudi margotuak - Interdiziplinarra egitea - Prestakuntza: Ixuratik hartuz gero, ongi egin da. Lan banaketak aztertu beharko lirakeke. Geletan, lan berezirik egin ote zen? - Eguna: Kanpoko funtzionamendua ona izan zen (erritmoa, jendea ongi errezibitua,...) (2) - Goizez soilik egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Publizitatea egunean eta aurretik - Jende ospetsua hobeto aprobetxatu (mintzaldia, ikasle-en galderak,...) - Irakasle eta ikasle (2) gehiagoren inplikazioa bultzatu. (3) - Sinaduren liburua berandu ateratzea. - Batxilergoko 1 mailakoei abisua emateko koordinazioa. - Saiatu beharko genuke antolamenduan <i>denok</i> parte gehiago hartzen, bestela zuzendariaren esku gelditzen da gehiena. - Lanen banaketa. Zuzendariarentzat lan gehiegi izan dela iruditzen zait. - Liburu erakusketak lan handia eta etekin eskas. (2) - Musika emanaldiaren gisako jarduerak detailak falta dituzte (aurkezpena, lekuaren egokitasuna,...) - Errotulazioa lehenago erabaki eta irakurketa egunerako prest izatea. - Irakurleentzako oroigarria: beharrak aurreikusi, banaketa koordinatu. - Interdiziplinarra egitea bultzatu. - Irakurleen helbideak eta telefonoak hasieratik lortu. - Irakurketa batzuetan, motela eta akatsezkoak - Liburu edota zati zailak hartu ziren - Ikasle batek huts egin zuen. - Azken orduan, desmadre bat izan zen guztia 		
<p>HURRENGO URTERAKO PROPOSAMENAK Propuestas para incluir el próximo año</p>			
<ul style="list-style-type: none"> - Egun horren inguruan, aste kulturala egitea. - Arratsaldera luzatu: - 4-5: Amaiur, Sanduzelai, ... ikastolak. - 5-6: Euskaltegiak. - 6-7: Gurasoak. - Auzora zabaldu: Auzoko Elkarte, Polikiroldegiak, ... - Iñaki Azkona: erdaldun "ospetsu" bat deitu, aukeraturako liburuaren atal bat erdaraz irakur dezan. - Jarraitu batzorde batean lanak banatzen (guraso, plastikazko irakasleak, Euskara Batzordeko irakasleak, Euskara Departamentuko irakasleak, Batxilergoko ikasleak, Zuzendaritzako ordezkariak) - Kazetariak, ... - Antolakuntzarako batzorde eraginkorragoa antolatu beharko genuke, esan behi dut, ardurak benetan banatzeko. - Komunikabideetan oihartzun handiagoa lortzen saiatu beharko genukeela iruditzen zait. - Liburu aukeratzeko irizpideak erabaki. - Ikaslearen eskuarmena zabaltzen ahalegindu. - Jarduera mantendu behar da. - Horren inguruan euskararen aldeko mugimendua sortzen saiatu behar dugu (Euskara batzordearen eskutik...) - Izena duten geletan biografia idatzi behar da?. Departamentuek egin dezakete (Axular, Euskara Dep., Elhuyar, Zientziak Dep., ...) gela barrenean landuz. - Barrera arkitektonikoak kendu. - Irakurleak eta errotulaziorako aurtengo proposamenak kontuak hartu. - Liburu klasiko, baina ahal den neurrian, errazagoa eta errazago eramateko modukoa. - Azken orduan jendeak egon behar duen lekuan egotea. - Ahal duten famatuak behinik behin, dena bukatutakoan, ikasle guztiek entzungo duten hitzalditxo eman. 			

2003/2004 BIURDANA ALDIZKARIA

1999-ko irailean hasi ginenetik, urtero bitan argitaratu ohi dugu aldizkaria eta ihaz ere bete ziren bi txandak, azaroan; guraso eta inguruari begira egina gehien bat eta apirilean; barnera begira, ikasle eta irakasleontzat alegia. Ale bana eranten dugu.

Ihaz zehaztu genuen aldizkaria egiteko prozedimendua (eraskin II). Lagungarri gertatu zaigu eta ukitu gutxi batzurekin mantentzeko asmoa dugu.

Hiru irakasle, Euskara batzordekoak hauen artean aldizkari koordinatzailea, bost ikasle sekzio arduradunak, aldi berean erredakzio taldeko partaide eta hamasei ikasle kazetari lanetan aritu dira. Gainera hainbat laguntzaile, bai ikasle, irakasle eta baita gurasoak ere, hauek ez ditugu zenbatu, mandatu orririk gabe aritu dira eta.

Ekitaldi hau ikasturteko ekintza extraeskolarraren eskeintza barruan agertzen da, ikastetxeko zuzendariordeak beste ekintza estraeskolarrak bezala, koordinaturik.

Prozedimenduan zehazten den fluxu diagraman agertzen den jarraibideen arauera burutu dira lanak. Partehartzaile guztiekin batera hiru bilera egin ditugu eta sekzio arduradun bakoitzarekin eta honen langintzaileekin, batzbeste beste hirusa.

Hauxe da aldizkari koordinatzaileak eskeini digun maketazio eta argitarapen fitxa:

- Argitaratzen diren aleak: 1000
- Argitaletxea: Zeroa multimedia.
- Maketazio softwarea: Photoshop 2 eta Quark X Press 3-1.

- Maketazio hardwarea: Macintosh ordenagailua.
- Distribuzioa: Mavipost. Ikasle guztien etxeetara bidaltzen da postaz. Ikastetxeko atezaintzan egoten dira eskuragai hainbat ale. Liburudenda euskaldun guztietan eta 2-3 erdaldunetan ere bai. Gaztedi etxean.

Erabilitako materialeak eta informazio iturriak barnekoak ezezik, Iruñerriko komunikabideak eta internet izan dira gehien bat. Materiale grafikoa: ikastetxeko argazki makina. Irteeretan, irakaslea izaten da material honen arduradun eta baita informazioa jasotzearena ere baldin eta talde horretan erredakzio taldekorik ez bada.

Argitaratu baino hilabete bat lehenago biltzen dira materialeak, jarraian maketazioa egiten da, imprimatokian txanda eskatu, plantxak egiteko momentuan imprimatokian

egon eta behin argitaraturik, aleak jaso, distribuzio enpresara eraman eta amaitutzat ematen da prozesua.

Balorapena egiteko bilera egiten da eta “merendola” ere erantsi diogu prozedimenduari. Epe laburrean hurrengo alearen prestakizunetan hasiko gara.

GELAN EUSKARA MINTZATUAREN PROGRAMAZIOA ETA EBALUAZIOA

Ekintza handi hau bere egunerokotasunagatik, euskara mintzatuaren erabilpenean funtsezkoa da. Zaila da ordea arlo ezberdinetan komuneko minimo batzuk adostu, landu eta ebaluatzea, arlo bakoitzaren berezitasunagatik eta are gehiago aurten bezala irakaslegoaren heren luzea institutuan berria bada.

Gure euskara planean, mintzamena bitarteko duten jarduerak lantzeko hainbat iradokizun jakinarazten diegu irakasleei:

Esposizio-azalpena nola egin behar den, galdera erantzunak, eztabaidak eta taldelanak euskara aldetik emankor izan daitezen bete beharko lituzketen baldintzak zerrendatu beren gelako programazioetan kontutan har ditzaten.

Ebaluatzea ere zaila gertatzen da, horretarako irakaslearen koadernoan euskeraren erabilpena espontaneo edo behartua den eta ikaskideekiko harremana euskaraz edo erdaraz den jasotzeko modua proposatzen diegu. Ondoren ebaluaketa bakoitzean boletinerako oharrak betetzeko aukera erabiltzeko gomendioa egiten dugu.

Hau urteroko lana da, gehien bat irakasle berriekin egiten dena. Oraingoz ez dugu asmatu eta adostu jarraibideak zein neurritan betetzen diren jakiteko modua, beraz, hemen ere badugu zer hobetu.

IKASTETXEKO BESTE EGOITZAK EUSKARA TOPAGUNE

Ikasturte hasieran ohi dugun moduan maila eta talde guztietan mintzagrama osatzeko galdetegia pasa dugu. Besteak beste, hiztun aktiboak antzeman ditugu. Euskera batzordekook, deialdi idatzi baten bitartez bilera batera deitu ditugu, talde bakoitzeko bi, beraz berrogeita bi ikasle. Pasabideak, jolastokia eta beste egoitzetan euskaren presentzia aregotzeko

ideiak eskatu dizkiegu eta baita hauek aurrera ateratzeko laguntza ere.

Talde osoko bilera bat, zikloka beste bana, beraz hiru eta bereziki lehenengo ziklokoekin beste bat gehiago. Bilera hauetaz aparte hiru lan saio ere egin ditugu materialeak prestatzeko, kartelak eta txartelak. Esan beharrik ez dago bilera hauek euskeraz egin ditugula, giro jatorrean eta euskera ez akademikoa erabiliz; txistek kontatu, “bazilatu”.

Aurten bi kanpaina burutu ditugu:

- Pasabideetako hormetan kartelak jarri, euskara erabiltzea amimatzuz, beraien asmatutakoak eta olerki eta abestietatik ateratako leloak erabiliz. Hiruilabeteko bakoitzean aldatu egin ditugu.
- Hainbat(100)txartel plastifikatu, NIREKIN EUSKARAZ leloarekin. Hogeita hamabost ikasleek hartu zuten konpromisoa bularrean eramateko sendagileen antzera, gainera bakoitzak beste bina txartel zituen berarekin euskeraz mintzatzen zirenei emateko.

Parte hartu duten ikasleen esanetan, beren arteko harremana euskeraz izan da eta institutuko gainontzekoek harrera ona egin diote orohar. Datorren ikasturterako ere animoso dira.

Eguberri festa da ikastetxean ospatzen den jai aipagarriena, Batxillergoko 2. Mailakoei egiten zaien agurrarekin batera.

Aktibitate ugari egiten dira, gehienak euskera mintzatua eta informala erabiltzeko aukera paregabea eskeintzen dutenak. Karta jokoak, kirolak, lehiaketak ginkanak eta jaialdia: dantzak, abestiak... .Ikasleen gehiengoaren partehartzea biltzen da. Egun arrakastatsua izaten da.

Euskara idatziak ere badu bere tartea. Egun hortan banatzen dira ipunin eta narrazio lehiaketaren sariak. Aurtengo sarituak: DBH-ko 1. Zikloan Garazi Urteagak jaso du 1. Saria eta Fermin Arsuagak bigarrena. DBH 2. Zikloan Saioa Remirez izan da saritua.

HIZKUNTZA INGURUKO HITZALDI, LEHIAKETA LITERARIOAK...

Hiru maila ezberdinetako lehiaketetan parte hartu ohi dute gure ikasleek: institutu barruan, Iruñako Udaletxeak antolatutako literatura lehiaketa eta Nafarroako Gobernuak antolatutakoan.

Ikastetxe mailakoan, ipuin eta narrazio lehiaketa izaten da. Euskara arloak hartzen du bere gain ekintza handi honen antolamendua eta ardura. Klase saio bat uzten zaie lana presta dezaten. Euskeraren erabilpena indartzearekin lotua dago partaidetza, ugariagoa 1. Zikloan.

Aurten Nafarroako Gobernuko literatura lehiaketan, olerkian, 3. saria eskuratu zuen gure institutuko Kristina Arribillagak.

Iruñako udaletxeko 2004 literatura lehiaketan, 14 urtetik gorakoentzat, narrazio sailean Ziargi Etxartek bereganatu zuen 2. Saria eta baita aipamen bat ere. Olerki sailean ikasle hau bera izan da 3. Saria eskuratu duena eta Ander Perezek aipamen bat.

BALORAZIO OROKORRA. ONDORIOAK

Urtero eraberritzen den proiektua da, ikaslearen protagonismoan oinarritzen dena eta bere sormenaz baliatzen dena, euskararen erabilera era atseginez egiteko modua eskeintzen duena. Metodologi aktiboa eta partehartzera bultzaten duena eskura dauzkagun materialeak erabiliz.

Hizkuntza helburuak argi zehaztuak daude ekintza handi bakoitzean nahiz eta beti ekintza hauen helburua euskararen erabilpen hutsa ez izan.

Ekintzen deskripzioa eta sekuentziazioa ez dago beti curriculumean zehaztua ekintza batzuk ez bait dira curricularrak. Hala direnak ordea zehaztuak daude.

Ekintza handienak: irakurketa publikoa eta aldizkaria zehazki ebaluatzen dira baita jaiak ere besteei satisfazio mailako ebaluaketa egiten zaie.

Ekintza nagusiak estandarizatuak daude hau da urteko plangintza sartuak. Irakasle on inplikazioa eskatzen dute eta

guztion eskuharmenari irekiak daude. Zabala izaten da.

Ekintza gehienak, irakurketa salbuespen edozein ikastetxetan egingarriak dira iruditzen zaizkigu, bakoitzak dituen baldintzak eta mugak gogoan hartuz gero.

ERASKIN I: LIBURUAREN IRAKURKETAK SORTUTAKO DIZIPLINARTEKOTASUNA

- Betidanik interesa izan dugu Biurdanan Liburuaren Irakurketa irakurketa soilean geldi ez dadin. Proposamena luzatzen zaie departamentu guztiei irakurketaren aitzakiarekin liburuaren gaiaren inguruan hausnartzeko eta beren ikasgaiekin ahal duten heinean lotzeko.
- Aurtengo obrak joku handia eman du honetarako, Orixeren “Euskaldunak” obra epikoa Euskal Herriko mende hasierako gizartearen bizimoduaren isla izan baita. Horrez gain, zenbait herri kanta daude islaturik bertsoen artean.
- Ikasgai desbedinetatik honelaxe ikusi dute Orixeren obra:
 - Euskara: Orixe eta bere obra. Irakurketak.
 - Plastika: Orixeri buruzko lanak.
 - Musika: Euskaldunak obran agertzen ziren zenbait kanta. Herri musika eta bertako instrumentoak.
 - Teknologia: Mende hasierako gizartearen teknologia. Burdinaren aintzinako ekoizpena eta burdinolen funtzionamendu mekanikoak.
 - Gizarte: Euskaldunak liburua lan etnografikoa bezala. XX. mende hasierako gizarte.

Plastika

Plastika arloan, ohi den bezala, irakurketa publikorekin batera irakurketarekin zerikusia duen gaiaren bat hartzen dute marrazketa artistikoa lantzeko.

Maila: D.B.H. 4.

Lana : Ikastetxeko Irakurketa Publikorako kartelaren diseinua.

Idazlea : ORIXE

Tamaina : DIN A3

Teknika : librea

Lan honetan landu diren gaiak:


- Sormena eta bera bultzatzeko erabiltzen diren teknikak
- Lanaren planifikazioa. Aurretik egindako zirriborroak, aukeraketa...
- Konposaketa. Konposaketa eredu ezberdinak ezagutu eta irudirako egokiena aukeratzea. Maila ezberdineko irudiak osotasun batean integratzea: irudi nagusia, erakunde ezberdinen anagrama eta logotipoak...
- Kolorea eta irudiak bete behar duen helburua erlazionatzea era egokian.
- Tipografia. Hizki mota eta tamaina egokiak aukeratzea, hauen kolorearekin jolastea...
- Talde kideen artean ideia ezberdinak komentatzea, egokiena aukeratzea jarrera kritikoa izanez baina beti ere besteen lana errespetatuz.

Egindako lanak, urtero bezala, erakusgai jartzen dira irakurketa publikoaren egunerako.

Teknologia Arloa

Teknologi arlotik bi gauza landu dira, batez ere: mende hasierako objeto teknologikoak eta aintzinako burdinaren ekoizpena.

Aintzinako tresna teknologikoak aztertzeke ikasleek aitona-amonei beren garaiko bizimodu teknologikoari buruzko ikerketatxo bat egin dute, inkestak eta idazlanak burutu dituzte. Lan honen helburu nagusia teknologiak garai ezberdinetan gizartearengan izan duen eraginaz konturatzeko izan da.




Orixek aipatzen zituen hainbat ogibide, gaur egun desagerturik direnak, eta gizakiak bere ingurua menperatzeko erabili duen tresneria aztertu dituzte. Atal honen bukaera ikastetxean ikusgai zegoen erakusketaren bisitaldia izan zen.

Orixek Euskaldunak obran burdinoleei buruzko bertsoak aztertu ditugu eta burdinaren ekoizpenarekin lotu. Honekin batera Pagoeta parke naturalean dagoen Aia herrira joan ziren DBH 2. mailako ikasleak eta bertan XVI.mendeko baserria eta XVII. mendeko burdinola ikusi ahal zuten.

Baserrian erakusketa etnografikoa eta aintzinako ogibideen argazki eta tresnak ikusgai daude. Baserriaren egurrezko egitura bitxia da, aintzinako moduan egin baitago eta lotura guztiak egurrarrezko gabilen bitartez eginak dira burdinezko iltzerik erabili gabe.

Burdinola, XX.mendiaren hasieran itxi behar izan bazuten ere, berreskuratu egin dute eta orain dela berrehun urte erabiltzen zuten teknikak erabiliz martxan jartzen dute.

Bertan burdingintzaren inguruan aintzinako moduak aztertzeaz gain, gizar-tearengan burdinaren ekoizpenaren eragina ikertu ahal izan dute. Martxan jartzen duten burdinola honetan ikusgai dira, baita ere, urak mugiarazten dituen tresneria eta makineria.



Musika Arloa

- Aurtengo irakurketa publikoak lotura zuzena izan du musikarekin Orixeren *“Euskaldunak”* liburuan hirurogei kanta baino gehiago agertzen baitira. Orixe kanta hauen bitartez herriko pentsamoldea jakitera ematen saiatu zen. Honek aukera ederra eman digu tradizioa, ohitura zaharrak, herri kantikak, musika eta literatura uztartzeko. Bernardo Atxagak dioen bezala, musika eta literatura betidanik lotuak izan dira eta *lirika* hitza erabiltzen da aintzinean bertsoak lira batekin errezitatzen zirelako. Uztarke-ta honen eredu ederra utzi digu Orixe.

XVIII

–Neure senar tontozko
arto-jale aundizko;
zazpi talo bear ditu
otorduan jateko.–

–Neure emazte belendin,
katu-usaia deragin;
ortzak galdu ditun eta
ire pertzak egin din.–

–Neure senar baldarko
laister ez da deustako;
alorrean landa zugun
txoriak aizatze.–

Allegretto ♩ - 116

Ne-re se-nar ton-toz-ko ar-to ja-le aundiz-ko zaz-pi ta-lo be-ar
di-tu o-tor-du-an ja-te-ko tra-la-ra la-la-ra-la la-la-ra-la la-la-ra-la la-la-ra-la
la-o-tor-du-an ja-te-ko. ---

- Irakurketaz baliaturik, kantikak prestatu ditugu DBHko talde guztietan.
- DBH 1 eta 2. kurtsoetako ikasleek gainera, irakurketa publikoaren egunean interpretatu egin zituzten Oskorri folk taldeko kantaria den Natxo De Feliperekin batera.





- Ikasleen musika taldea sortu zen soka eta herriko tresnen jotzaileek parte hartzen zituztelarik. Batez ere DBH 4. mailako ikasleez osaturikoa zen eta eskusoinua, bibolina, biola, alboka, txirula eta ttun-ttuna jotzen zuten.
- Folk talde honek lagundu egin zien DBH 1. eta 2. mailako ikasleei irakurketa publiko egunean.

- Beste ikasle pare batek laguntzarako musika jotzen zuten DBH 3. mailako ikasleak irakurtzen zuen bitartean.
- Ikasleek aztertu egin dute, era berean, irakutzera edo kantatzera etorri ziren pertsonaien ibilera musikala: aipatu dugun Natxo De Felipe, Joseba Tapia, Pello Zabala...





- Hainbat bertsolari ere hurbildu zen guregana irakurri eta kantatzera. Ikasleek ederki gozatu zuten Orixeren bertsoak Maialen Lujanbiok edo Amets Arzallusek maisuki interpretatu zituztenean.
- Herri musika ere jorratu egin da, DBH 4. mailako ikasleek eta Batxilergo-ko mailako ikasleek ikerketak egin zituzten herriko musikari buruz eta, lana amaitzeko, Oiartzunera joan ziren Ergoiengo herri musika instrumentuen museoari bisita eginez. Bertan Juan Mari Beltranekin solasean aritu ziren museoa ikusi ondoren.

Euskara

- Euskara Departamentuak lanik handiena hartzen du Irakurketa Publikoren egunerako. Berari dagokio idazlea aukeratzea eta, ondoren, irakurri behar diren testuak hartu ikasleen mailaren arabera.
- Irakurketa Publikoa antolatzen hasi zenean erabaki zen gaurko idazleekin aintzinako autoreen obrak ere jakitera ematea. Orixe aukeratzea ez zen erraza, bere euskara jaso baita eta horrek ikasleenganatzea zailtzen du eta.
 - Hala ere, urtero bezala, Orixeren obra arakatu egin dute eta maila bakoitzean zein den hoberen egokitzen den testua aukeratu egin dute.

Horrela, irakurketa eguna baino lehenago testua ederki landua dute ikasleek.

Ikasleekin nola landu zen

1. Zikloan

Kontuan hartu zen lehen zikloko ikasleak oraindik euskararen oinarriak lantzen ari direla eta, hortaz, ezin zitzaizela “Euskaldunak” poema idatzi zen ortografia-rekin eman; horrek nahasmen handia sor baitzezakeen gehienengan, bereziki, arazoa izan zezaketenengan. Horrela bada, maila horietan irakurri behar ziren zatiak, berriz, idatzi ziren, ortografia gaurkotuz.

Testu “zuzendu” hori landu zen gelan.

Adin horretako ikasleentzat poemaren hizkuntza zaila izango zela jakinez, aintzat hartu zen irakurtze eta ulertzeari saio mordoxka eskaini beharko zitzaizkion. Azkenean, bost eman zitzaizkion.

Gelako prestaketak bi fase izan zituen:

- a. Testuaren irakurketa eta komentarioa (alderdi desberdinen ulermena: lexikoa, ohiturak...).
- b. Testuaren transformazioa (hitz neurtuan zegoen testua prosan idaztea).

2. Zikloan eta Batxilergoan

Maila hauetan egindako lana, testuen irakurmen eta ulermenean zentratu zen, gehienbat. Euskara Departamentuak, aldez aurretik, *Euskaldunak* idazlanetik hainbat testu zati aukeratu zituen, ikasleen adina eta gaitasunak kontuan hartuz. Hori dela eta, batxilergoko 2. mailan, *Euskaldunak* lanez gain, Orixek berak Cervantesen *Quixoter*en itzulpen zati bat ere aukeratu zen.

Material didaktiko horrekin eskola saioetan bi arlo landu zen:

- Orixeren biografia eta testuinguru soziokulturala.
- Aukeratu irakurtzeko zatiak ikasleei ozenki irakurrarazi eta iruzkina burutzea. Iruzkinetan, literatur baliabideak kontuan hartu arren, testuaren ulermenari garrantzi handiagoa eman zitzaion eta baita era sakonagoan landu ere.

Erakusketa etnografikoa

Irakurketa Publikoa hasi zenetik, (hau bostgarren edizioa izanda) eta irakurri behar den liburuarekin loturik, erakusketak antolatu izan ditugu.

Aurtengo “Euskaldunak” liburuan Euskal Herriko ogibide eta ohitura zaharrak aztertzen direnez, oso aproposa iruditu zitzaigun erakusketa etnografikoa antolatzea.




Erakusketa honen ardura irakasleez osaturiko azpibatzerde batek hartu zuen. Alde batetik irakasle ikasle eta guraso askok herriko etxeetako tresna zaharrak ekarri zituzten. Beste aldetik zaharkin denda eta etxeetan aritu izan dira arduradunak material eske.

Aurreko urteetan erakusketa egun baterako izan zen. Aurten, berriz, irakurketa eguneko aste osoan zehar izan da bisitagarri, martxoaren 29tik apirilaren 2ra. Honek arazoak eman ahal zituen materiala babestu eta gordetzeko orduan, kontuan hartuta goizez eta arratsaldez irekita zegoela eta zaintzaileak beharrezkoak zirela.

Honez gain, lan handia izan dute materiala katalogatu eta prestatu eta erakusgai jartzeko azpibatzerdekideek.

II. ERANSKINA ALDIZKARIA EGITEKO PROZEDURA



AZPIPROZESUA KUDEATZEKO KALITATE EZAUGARRIAK
Erabilpen praktikorako metodologia

AZPIPROZESUAREN JARDUERAK	ARDURADUNAK	KUDEAKETARAKO BALIABIDEAK	EGUTEGIA
Aldizkariaren aurreikuspena egin planifikatu eta prestatu	Euskera taldeak	Euskera plana Aldizkaria azpiprozesuaren zehaztapenak	Iraila
Erredakzio taldea osatu: –Erredakzio kide izateko deialdia prestatu eta sektore ezberdineei pasa. –Proposamenak aztertu. Erredakzio taldea eratu. –Funtzionamendua zehaztu; eginbeharrak eta betekizunak	–Euskera Batzordea –Aldizkari koordinatzailea	–Deialdi eredu Funtzionamendurako jokatibide kodea (taldea eratzen den egunean erabakikoa da)	Irailaren amaiera
–1. Bilera prestatu.; Egitasmoa eta aurrekontua tajutu. Agenda erabaki.	Erredakzio taldea	Orain arteko aldizkariak Aurrekontuetarako eredu Agenda eredu	Urriaren 1. Hamabostaldi
Eskola Kontseiluko Euskera Batzordeari aurkeztu onikusia jaso dezan	Aldizkari koordinatzailea	Aurrekontu eredu hornitua Agenda eredu hornitua	Urrian
Sekzioka lanak banatu eta antolatu: –Albisteak jaso, idatzi, argazkiak atera. –Baldintzetara egokitu; hedadura... –Sekzio edo atal bakoitzeko arduradun bat hautatu –Laguntzaileak bilatu eta enkarguak zehaztu. –Lana bukatuak sekzio arduradunari entregatu.	Sekzio arduraduna Laguntzaileak	Mandatu eredu	Urria-azaroa
Erredakzio taldearen bilera orokorrean egindako lanari onikusia eman eta argitaratuko den erabaki.	Aldizkari koordinatzailea Erredakzio taldea	Akta eredu	Urtarrila Ekaina
Lan guztiak maketatu Aldizkaria argitaratu Banaketa antolatu eta burutu	Aldizkari koordinatzailea Maketazio taldea Euskera batzordea	Maketazteko programa –... –...	Otsaila Iraila
Egindakoa ebaluatu, hurrengo baterako jaso diren iradokizunak jaso eta zerrendatu	Erredakzio taldea Euskera batzordea	Bileren aktak Irakurlearen buzoia	Bukatu eta 1. Hamabostaldia
Sortutako materiale eta erregistroak artxibatu	Aldizkari koordinatzailea	Disketeak Aktak	Amaitu ahala

I.E.S. BIURDANA	PROZEDIMENDUEN ESKULIBURUA	
ZERBITZU ESKEINTZA PROZESUAREN ZEHATZAPENA		DATA

PROZESUA: EUSKERA PLANA AZPIPROZESUA: (EKINTZA HANDIA) ALDIZKARIA
--

HELBURUA

Aldizkaria den zerbitzu eskeintzaren azpiprozesua, antzeman eta kontrolatzeko prozedura zehaztu.

APLIKAZIO EREMUA

Aldizkaria azpiprozesua osatzen duten ekintza guztiak eta hauei dagozkien zehaztapenak, eta kontrol planak Biurdana BHI-ko sektore guztietan izango du eragina; ikasle, irakasle, guraso eta langile ez irakasleak, halaber, Administrazioari, atxikitutako ikastetxeei, hedabideei, liburudenda eta partikular batzuei igorriko zaizkizkie.

GARAPENA

Euskera Planaren azpiprozesua den Aldizkaria, fluxu diagraman , eraskin I,urrastuak dauden bederatzi jarduerak jarraituz gauzatuko da

Bestalde, aldizkaria zerbitzu eskeintza zehaztapen laukian, eraskin II, adierazten diren ; jarduerak, arduradunak, baliabideak eta egutegia aintzat hartuz burutuko da

Azkenik, Aldizkaria zerbitzu eskeintza kontrol planean adierazten diren adierazlea, onarpen maila, neurketa era (unitatea),maiztasuna, erabiliko den bitartekoa, metodoa, emaitzen erregistroak eta jarraipenaren arduraduna zehaztuz egingo da.

EGINBEHARRAK ETA ERANTZUNKIZUNAK

Euskera batzordeak

Aldizkaria gauzatzeko prestatu den planari onikusia eman eta aurrerantzean errebisatzeko ardura hartu.

Erredakzio kide izateko deialdia prestatu eta sektore ezberdinei pasa.

Finantzia bideak aztertu eta behar diren baliabideak eskuratzeko burupideak egin.
Kontrol planaren ardura eta jarraipena.

Erredakzio taldea

Erredakzio taldearen funtzionamendua zehaztu: eginbeharrak eta betekizunak.
Egitasmoa zehaztu, aurrekontua prestatu eta agenda erabaki.

Sekzio bakoitzak aurkezten dituen lanei onikusia eman eta behar balitz lan ezberdinen artean aukera egin edo erabaki.

Irakokizunak jaso eta bidezkoak badira hurrengoetarako jaso .

Talde funtzionamenduaren balorapena egin.

Aldizkari koordinatzailea

Erredakzio taldea osatzeko ardura eta behin osatuta bilera deialdiak egitea eta zuzentzea baita erabakiak bideratzea.

Eskola Kontseiluko Euskera batzordeari aldizkari egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu. Ebaluaketa emaitzak eman.

Aldizkaria den prozesuko urrats ezberdinak koordinatu eta agenda zaindu.

Sortutako materialeak eta erregistroak artxibatu.

Sekzio arduraduna

Erredakzio taldekidearen betekizunak ezagutu eta bete.

Laguntzaileak bilatu eta enkarguak zehaztu.

Lanak jaso ahala erredakzio taldeari entregatu.

Maketazio taldea

Erredakzio taldeak entregatzen diona argitaratzeko antolatu eta prestatu.

Sortutako materialak artxibatu.

Argitarapena burupideak egin.

Banaketa antolatu.

Laguntzailea

Ematen zaion enkargua zehaztapenen arabera eta epetan bete.

BIURDANA BHI	MANDATU ORRIA ZNB:	
ALDIZKARIA ZERBITZU ESKEINTZAREN ZEHAZTAPENA	EKINTZA 2.	DATA

SAILA:

<p>Gaia:</p> <p>Neurriak:</p> <p>Argazkiak:</p> <p>Erabili beharreko euskarria edo materialea:</p> <p>Aurkezpen data:</p> <p>OHARRAK:</p>

Lana jasotako data	
--------------------	--

Egilearen oniritzia	Sailburuaren oniritzia	Koordinatzailearen oniritzia
Data:	Data:	Data:
Sin:	Sin:	Sin:

1. BILERARAKO DEIALDIA

<u>GAI ZERRENDA</u>	Data:
	Ordua:
	Lekua:

EGITASMOA: Aldizkariaren hurrengo alea prestatu eta antolatu. Erredakzio taldea eratu. Funtzionamendua zehaztu. Agenda erabaki. Sekzioka lana banatu. Eskola Kontseiluaren onespena jasotzeko egitasmoa zehaztu eta aurrekontua egin.

ARDURADUNAK: Koordinatzaileak moderatzaile lanak egingo ditu.
Bildutakoen arteko batek akta jaso.

ORDUA	GAIAK

HOTS: Bilerak hasiera eta bukaera ordua izango ditu eta gai bakoitzari denbora mugatua emango zaio.

BILERAREN EBALUAKETA

BILERA Zbkia
DATA

Puntuatu 1-10era atal bakoitza		Gurutze bateb bitartez markatu dagokiona	
EDUKIA		OROHAR BILERA IZAN DA	
AZALPEN ARGITASUNA		OSO ONA (9)	
EGINBEHARRA ZEHAZTEKO BALIAGARRI		ONA(7)	
		ONARGARRIA (5)	
		AHULA (3)	
		OSO ESKASA (1)	
ONGI EGINDAKOA	+	HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK	Δ
HURRENGO GAIZERRENDAN SARTZEKO PROPOSAMENAK			

* Hau bera erabil daiteke denena hustutzeko